

Hamabi film labur lehiatuko dira Zeinu Hizkuntzako Zinemaldian

XII. Nazioarteko Zeinu Hizkuntzako Zinemaldia hartuko du larunbatean Tolosako Leidor aretoak; Frantzia, Espainia eta Kataluniakoez gain, Estatu Batuetako film bat ere izango da aurtengoan // 5

Kultura Plazara ekimenean 8.000 pertsonak parte hartu dute

Tolosako Udalak balantze baikorra egin du ekainetik urrira luzatu den jaialdiaz; 143.000 euro bideratu dituzte ekimenara // 3

Gernikako Arbolako eremuko lanak laster amaituko dituzte

Oinezkoei lehentasuna ematea izan da eraberritze lanen helburua, eta 501.000 euroko aurrekontua izan dute // 4

Erik Jakak 8-22 galdu du Unai Lasoren aurkako partida

Beotibarren jokaturako partida galduta, lizartzarra Lau eta Erdiko Txapelketatik kanpo geratu da // 6



Trikiti doinuak eta bestelakoak entzun ahal izan ziren larunbatean, Tolosako txoko askotan. ENERTZ MAIZ

Berriro ere kaleak musikak eta festa giroak hartuta

Azken bi urteetan ezin izan dute Musikherria antolatu, eta larunbatean gogotsu atera ziren Tolosako musikariak kalera; herriko txokoetan jai giroa izan zen egun osoan // 3



AUZOTAR GUZTIAK GOGOAN

Kultur asteburua izan dute Tolosako San Esteban auzoan. Hainbat ekitaldi izan dituzte, tartean hil diren auzotarrak gogoratzeko zuhaitz landaketa. Loreak jarri edota negar egiteko lekua izan daitekeena prestatu zuten igandean. L. CARRASCO



HIRUGARRENEZ OSPATU DUTE

Villabonako Beertoki taldeak Beertoki Fest egin du beste urte batez. Herrian kultur mugimendua bultzatzea ere badago proiektuaren atzean eta asmo horrekin egin dute festa. Kontzertuak eta artisau garagardoa izan dira protagonistak. J.M.



MEMORIAK BIZIRIK DIRAU

38 urte bete dira Joxi Zabala eta Joxean Lasa desagerrarazi zituztela. Urteroko hitzorduari huts egin gabe, senide eta lagunekin batera jendetza bildu zen Tolosako Olarrain auzoan dagoen haien monolitoen atarian. Haien memoriak bizirik jarraitzen duela esan zuten, eta egia exijitu zuten. ATARIA

«Feminismoa da antidoto bakarra»

Pasa den astean Gasteizen izandako erailketa matxista salatzeko elkarretaratzeak egin dituzte Tolosan eta Aiztondo bailaran

Erredakzioa

Gizon batek emakume bat hil zuen pasa den astean Gasteizen eta erailketa berri hori salatzeko elkarretaratzeak egin dituzten eskualdean. Tolosan asanblada feministak eta Itaiak deituta egin zituzten Trianguloan, eta Aiztondo bailaran Lurgatz Asanblada Feministak egin zuen deia.

Eraso sexistarik ez! Autodefentsa feminista lelopean elkartu ziren herritarrak Villabona eta Zizurkil lotzen dituen oinezkoen pasabidean, eta bertan izan ziren Akain talde feministako kideak ere. «Haserre» adierazi zuten bildutakoek eta gogoratu zuten 2003tik Euskal Herrian 112 izan direla eraildako emakumeak; «eraso sexistak onartzen ez dituen bailara batean bizi nahi dugu», esan zuten.

Lurgatz talde feministako kideen esanetan, biolentzia ma-



Villabona eta Zizurkil arteko zubian egin zuten elkarretaratzea. ATARIA

txistaren pandemiak mendeak daramatza gure mundu honetan. «Gizartearen erdiari zuzenean eragiten dion gaitzaz ez da inor arduratzen eta ozen salatu nahi dugu ez gaudela prest gehiago jasateko. Feminismoa da daukagun antidoto bakarra eta gizarte guztian zabaltzen saiatuko gara».

Honenbestez Aiztondoko mu-

gimendu feministak indarkeria sexista lehen mailako arazo politikotzat hartua izan dadin eskatu zuten, «egungo jarrera konplizeak alboratu eta bizi garen jendar-te antolaketa sexistari aurre egiteko».

Benetako neurriak behingoz har ditzatela exijitu zuten eta autodefentsa feministarako deia egin.



ESERIALDIA, MASKARAK DIRELA ETA

Haurrak Ere Bai plataformak deituta eserialdiak egin zituzten atzo, Euskal Herriko hainbat ikastetxetan, Eusko Jaurlaritzak ikasturte berrirako maskararen erabileraren inguruan egin duen protokoloa salatzeko. «6 eta 12 urte arteko haurrak aire librean maskarekin egoteak ez dauka zentzurik, haurrak maskararik gabe dabilta herriko plaza eta jolastokietan», esan du plataformak. Ibarako Uzturpe ikastolako hainbat gurasok bat egin zuten deialdiarekin. I.S.

Kaleko musika bueltatu da

Musikherria ospatu zen larunbatean Tolosako kaleetan; musikariak eta herritarrak, oro har, gogotsu zeuden eta giro aparta egon zen egun osoz

Erredakzioa

Denbora luzez lozorroan egon eta gero larunbatean bueltatu zen musika Tolosako kaleetara. Bi urtez ezin izan dute ospatu, baina aurten ospatu ahal izan dute berriz ere Musikherria ekimena. Tolosako musikari eta artista asko atera ziren kalera eta herriko auzo ezberdinetara iritsi zen musika goizetik hasita.

<<ASPALDIKO PARTEZ>>

Mikel Iraola antolatzaileetako bat izan da eta esan du egun borobila izan zela. «Aspaldiko partez kaleetan musika entzutea oso polita izan zen, giro ona izan zen egun osoan zehar». Musikaz gozatzeko aukera izatea pozgarria izan zen eta nabari zen herri-

tarrak gogoz zeudela. Antolatzailleak pozik daude izandako erantzunarekin eta kaleko musika taldeen lana balioan jartzearekin batera, herrian giroa sortzea lortu zutela dio Iraolak. «Jende asko gerturatu zen Tolosara eta aspaldian ikusi gabeko momentuak bizi ahal izan genituen».

Fanfarre, txaranga edo dulzaineroen atzetik ibiltzeko aukera egon zen, eta Tolosa Kantarik ere itzultzeko aukera izan zuen, eta jende ugari batu zen kantura. Musika eskolako ikasleak, Bonberenea txaranga, Uda berriko fanfarrea... denek izan zuten tokia Musikherrian.

Eguna borobiltzeko gauean Bisuteria orkestraren emanaldia izan zen.



Larunbat guztian zehar ospatu zen Musikherria Tolosako kaleetan. J.MIRANDA-E. MAIZ

8.000 pertsona inguru Kultura Plazaran

Irati Saizar Artola

Ekainetik urrira bitartean ospatu da Kultura Plazara jaialdia, Tolosako Udalak antolatuta. Arte eszeniko ezberdinei egin diete lekua, gune ezberdinetan aritu dira eta haur, gazte eta helduei begirako programazioa eskaini dute. Horrela, denera 8.000 lagun inguru bildu ditu jaialdiak denbora tarte horretan.

Olatz Peon Ormazabal Tolosako alkateak esan duenez 143.000 euro baino gehiago bideratu dira jaialdira, «kulturaren aldeko apustu argi eta garbian». Esan du proiektua «aitzindaria» izan dela, «elkarlanean garatutakoa», pandemia garaian horrelako jaialdirik «beste inon ez delako egin». Pozik agertu da alkatea emaitzarekin: «Herritarrei arte

eszeniko ezberdinez eta kulturaz modu seguruan gozatzeko aukera eskaintzeko, artista eta taldeen lana babesteko eta ezagutzera emateko, kulturari eta euskal taldeei ikusgarritasuna emateko eta Tolosa berriz ere kultur arloan erreferente bilakatzeko helburuarekin egin genuen jaialdi honen aldeko apustua eta helburuak eta aurreikuspena bete eta gainditu egin ditugu». Jaialdiak izan duen harrera «ona» eta herritarrek izandako erantzun «ezin hobea» ere azpimarratu ditu.

Eskaintzari buruz «askotarikoa» izan dela esan du Izarne Iglesias kultur zinegotziak: «Ekitaldi txiki eta handiak izan ditugu, batzuk oso jendetsuak eta besteak intimoagoak, zezen plazan, herriko beste hainbat plaze-



Julen Caminos, Olatz Peon eta Izarne Iglesias, zezen plazan. I.S.A.

tan eta landa auzoetara ere iritsi gara». Hasieran egindako aurreikuspenak «gainditu» dituztela esan du, hainbat ekitalditarako sarrerak agortu egin direla eta ia ez dutela ikuskizunik atzeratu behar izan.

110.000 euro inbertitu dituzte zezen plazan eta bestelako ere-

muetan egindako kontzertu eta emanaldietan; 16.000 euro inguru haur ikuskizunetan, eta beste 15.000 euro zinema saioetan. Guztira, beraz, 143.424,96 euroko kostua izan du jaialdiak.

Jaialdiari lotuta sortutako iruditeriarekin, sare sozial eta webgunearekin jaialdiari «nortasun

propioa» ematea lortu dela nabarmendu du zinegotziak era berean, «oso ondo» funtzionatu dute sortutako euskarri eta komunikazio bide guztiek, baita sarrera salmentak ere eta egindako lan horri guztiari esker jaialdiak zabalkunde handia izan du udalaren ustez.

Bidean produkzioak enpresaren laguntza izan du Tolosako Udalak jaialdia antolatu eta aurrera eramateko, eta Julen Caminosek, enpresako arduradunak adierazi du parte hartu duten taldeak ere «oso gustura» aritu direla eta asko eskertu dutela aukera, «bereziki talde txikiek eta hasi berriek, beren lana ezagutzera emateko aukera izan dutelako». Taldeek jaialdiko formatura egokitzeko egin duten lana ere aipatu du Caminosek.

Gernikako Arbolako eremua «irisgarriagoa» egin dute

Oinezkoei lehentasuna ematea izan da eraberritze lanen helburu nagusia; obrak, guztira, 501.440,64 euroko kostua izan du eta datozen egunetan emango dizkiote azken ukituak

Irati Saizar Artola Tolosa

Zabalik da eraberritu duten Gernikako Arbolako eremua. Obra nagusiak amaitu dituzte eta datozen egunetan emango zaie lanei behin betiko bukaera, azken lorezaintza eta txukunketa lanak egin ostean. Eremua bisitatzen izan ziren ostiralean Olatz Peon Tolosako alkatea, Egoitz Soroza bal hirigintzako zinegotzia eta obra aurrera eramateaz arduratu den Sasoi Eraikuntzak enpresa-ko ordezkari bat.

Alkateak esan du mugikortasun plana oinarri hartuta egin dituztela obrak. «Oinezkoak kalea irabazten joatea eta kotxei kentzea da gure asmoa, eta irisgarritasuna ondo bermatzea ere garrantzitsua da, izan ere, anbulatorioa bertan dago eta egunero herriar asko ibiltzen da joan-etorrian». Lanen helburu nagusia

oinezkoei lehentasuna ematea izan da, Peonen arabera: «Orain eremua atseginagoa da herritarrentzat, paseatzeko leku gehiago dagoelako, erakargarriagoa ere bada eta biziberritu egin da bertan kokatuta dauden saltoki eta negozioen mesedetan, eta Fronton kafetegia eta jabetxea irekitzen denean, ziur gaude, bizitasun gehiago hartuko duela eremuak», gehitu du Peonek.

Azpiegituri dagokienez, sa-neamendu sarea, ur hornidura sarea eta sare elektrikoa berritu dituzte eta telekomunikazio sareko aire linea lurperatu dute. Lurrazaleko lanei lotuta, berriaz, espaloiak zabaldu dituzte herriarren mugikortasuna hobetzeko, eta arrapalak berritu eta espaloia eta errepidea maila berean jarri dituzte. Sorozabalek azaldu duenez, aglomeratu inprimatua

erabili dute eremu osoan, «ko-txeen abiadura murrizteaz gain, Gernikako Arbolako eremu osari jarraitutasuna eta koherentzia emateko». Zirkulazioaren noranzko bakarra mantendu da eremu horretan, eta 16 aparkaleku jarri dituzte.

Hiri altzarien, seinaleen eta kale argiztapenen instalazioak ere berritu dituzte, Led argiak jarri «jasangarritasun energetikoaren aldeko apustuan urratsak egiten jarraitzeko».

Sasoi Eraikuntzak enpresa arduratu da obra aurrera eramateaz eta Girder Ingenieros enpresak eraman du obra zuzendaritza. Egindako lanek 501.440,64 euroko kostua izan dute.

MURAL BERRIA

Eremua eraberritzeko lan nagusiak amaitu badira ere, datozen egunetan amaituko dituzte lore-



Eremua bisitatu zuten ostiralen udal ordezkariak eta obra egin dutenak. I.S.A.

zaintza eta azken txukunketa lanak, eta zuhaitzak ere landatuko dituzte. Halaber, loreontziak jarriko dituzte, autoek behar ez duten tokian aparkatu ez dezaten.

Azaroan, epaitegi pareko horma margotuko dute «eremuari itxura berria emateko». Buru Bihotzez elkarteak arduratuko da murla pintatzeaz herriko artisten laguntzarekin.

Berritu egin dute San Blas auzoko azpiestazioa

Etxebizitzan gainean zeuden hainbat linea lurperatu eta kendu dituzte, segurtasuna eta bizilagunen ongizatea hobetzeko

Irati Saizar Artola Tolosa

San Blas auzoko bizilagunen eskaerei erantzunez, Iberdrolak hainbat hobekuntza egin ditu Tolosako azpiestazioan, punta-ko teknologia erabiliz.

Besteak beste, potentzia handitu dutela azaldu du Patxi Amantegi Ingurumen, Obra eta Zerbitzuak sailtako zinegotziak, «eremuaren eta udalerriarren etorkizuneko beharrei modu egokiagoan erantzuteko».

Transformadore berriak zarat maila txikiak dira eta intsonorizaturako kaxetan kokatu dituzte «inguruko bizilagunengan

enbarazurik ez sortzeko eta haien ongizatea babesteko».

Estibaliz Goñi Gaztelu i-DE enpresako Gipuzkoako buruak azaldu duenez, ekipo elektrikoak aire zabalekoak izan ordez, eraikinen barruan kokatuta daude orain eta horrek «asko murrizten ditu sor litezkeen arriskuak». Horrela, instalazio «modernagoa, trinkoa, ahalmen elektriko handiagokoa, arrisku elektriko txikiagokoa eta inpaktu bisual eta zarata inpaktu txikiagokoa» jarri dute. Iraunkorragoa ere badela esan du Goñik: «Matxura kasuetan argindarraren hornidura berreskuratzeko geure gai-



Iberdrolako eta udaleko ordezkariak, San Blas azpiestazioaren aurrean. I.S.A.

tasuna askoz ere handiagoa izango da orain».

Azpiestazioa berritzearekin batera, 30 kV eta 13,2 kV-ko lineen sarrera eta irteerak ere aldatu dira. Linea horiek ere lurperatuta jarri dituzte. Era berean, etxebizitzan gainean zeuden bi linea kendu egin dituzte, auzotarren eskaerei erantzunez.

Elkarlanean garatutako proiektua izan dela gogorarazi du Amantegik: «Udalak bitartekari lanak egin ditu proiektu honetan, bizilagunen beharrak eta eskaerak jaso eta Iberdrolari helaraziz».

AISIALDIRAKO GUNE BERRIA

Azpiestazioa trinkotu eta hainbat linea lurperatzeari esker, auzoan herriarentzako gune bat berreskuratu dute. «Ez da oso eremu handia, baina parke bat sortzea da gure asmoa, bizilagunen ongizatea hobetu eta aukera berriak eskaintzeko helburuarekin», esan du zinegotziak. Berreskuratu den eremu hori egokitu eta tolosarren eskura jartzeko lanak aurrerago zehaztuko dituzte.

Hamabi film labur, zeinu hizkuntzako zinemaldian

XII. Nazioarteko Zeinu Hizkuntzako Zinemaldia egingo da larunbatean, Tolosan; zinemaldiaz gain, bazkaria eta hitzaldia ere izango dira

Eneritz Maiz Etxarri Tolosa

XII. Nazioarteko Zeinu Hizkuntzako Zinemaldia larunbatean, hilaren 23an izango da Tolosan, eta filmak Leidor antzokian eskainiko dituzte. Hamabi film labur ikusteko aukera izango da. Julian Rodriguez Rojo, Gainditzen Tolosaldea eta Goierriko pertsona gorren elkartearen lehendakariak azaldu duenez, «zeinuen hizkuntza gure hizkuntza da, eta gure kultura eta komunitatearen parte, beraz, horri eutsi egin behar zaio».

Iaz, jaialdia ez galtzeko, *online* egin behar izan zuten, eta bakoitzak bere etxetik jarraitu behar izan zuen. Aurten, ordea, egoerak aldatuta, Leidor antzokira itzuliko dira zinema zaleak, eta

horrez gain, Botarri jatetxean antolatu dute bazkaria, eta arratsaldean hitzaldi bat izango da kultur etxean.

10:15ean irekiko dituzte Leidor zinema aretoko ateak eta 11:00etan emango diote hasiera jaialdiari. Sarreraren prezioa 8 eurokoa da, eta *Gainditzentolosa.com* webgunearen bidez edo Gainditzenek duen facebook orriaren bidez erosi daitezke Zeinu Hizkuntzako Zinemaldirako sarrerak.

BERRIKUNTZEKIN

Lehenengo, *Aten* (Bartzelona), *Cronos* (Bartzelona), *Unic* (Bartzelona), *La Maynade* (Frantzia), *El Circle* (Bartzelona), *The Doll* (Erresuma Batua) eta *Hay dos idiomas* (Bartzelona) film labu-

rrak ikusteko aukera izango da, eta ordu erdiko atsedeneren ostean, *Te quiero pa* (Malaga), *El seto* (Avila), *El novio perfecto* (Frantzia), *Lladres del Temps* (Bartzelona) eta *Feeling Through* (Ameriketako Estatu Batuak) eskainiko dituzte. Behin film labur guztiak ikusi eta gero, sari bana-keta egingo dute.

Gainditzen elkartearen lehendakaria «pozik» agertu da, aurten, berrikuntza moduan Ameriketako Estatu Batuetako *Feeling Through* film laburra Tolosara ekartzea lortu dutelako. Ez dela erraza izan lortzea esan du Rodriguezek, eta «oso ona» dela aurreratu du.

14:30ean bazkaria Tolosako Botarri jatetxean egin eta gero, 18:00etan, Granadako Isabel de



Julian Rodriguez eta Pedro Saldaña, zinemaldiaren aurkezpenean. E. MAIZ

las Herasen eskutik, *Cómo crear un cómic de Oreja Voladora* hitzaldia izango da, kultur etxean. Helburua binetak sortzeko prozesua ezagutzea izango dute. Hitzaldira joan nahi dutenek *gainditzen-g@hotmail.com* helbide elektronikora idatzi beharko dute mezu bat.

Rodriguezek azpimarratu du honelako ekitaldi bat antolatze-ko behar-beharrezkoa dutela instituzioen laguntza, eta baita beste jaialdien laguntza ere. Laguntza horiek tarteko, eta Kresala zineklubari esker, aurten, beste bost jaialdiek parte hartzen duten K Premioetan parte hartuko dute, eta jaialdi bakoitzeko

film laburrik onenak aukeratuko dituzte.

Pedro Saldaña, Kresala Zineklubeko ordezkaria da, eta honelako jaialdietan zeinu hizkuntzako filmak ikusteko aukera izateaz gain, zineklubetan film horiek eskuratzeko aukera izatea «oso garrantzitsua» dela azpimarratu du.

Jaialdi ezberdinetan saritzen diren film labur horiek herritarren eskura jarriko dituzte, eta Gipuzkoako zineklubetan jarriko dituzte zeinu hizkuntzako filmak. «Horrek ezin du muga bat izan, eta beste edozein film moduan eskura egon behar dute», adierazi du Saldañak.

Aire Ahizpekin hasitakoak jarraipena izango du

Baliarrainen kontzertuarekin hasi dute Udazken Kulturala eta abenduaren 12a bitarte luzatuko dituzte ekitaldiak

E. Maiz Baliarrain

Baliarraingo Udalak Bizipoza kultur batzordearekin eta Zartagi guraso elkartearekin batera antolatu du Udazken Kulturala. Larunbatean eman zioten hasiera, eta Aire Ahizpen kontzertua izan zuten plazan.

Larunbateko festa giroa albo batera utzi, eta ostegunean, hilaren 21ean, sahararrek bizi duten egoeraren berri izateko aukera izango dute. *Mendebaldeko Sahara: Zer gertatu da? Zer gertatzen ari da?* hitzaldia eskainiko dute balio anitzeko gelan.

Urriaren 31n, berriz, Gau Bel-

tza ospatuko dute, eta herritarrei gonbidapena luzatu diete Zartagi guraso elkartetik.

Azaroaren 7an, igandean, beste kontzertu bat izango da Baliarrainen, 19:00etan. Kasu honetan, Esanezin bakarlaria igoko da oholza gainera. Altzagarateko Ianire Aranazabe da emanaldia eskainiko duena, eta kontzertura joan nahi dutenek tokia erreserbatu beharko dute.

Azaroaren 11n, ostegunean, 19:00etan, eskualdean martxan jarri duten Lurtaro elkartearen berri emango dute: *Tolosaldea eta lekuko elikagaiak landuz, elikagai subiranorantz*.

Azaroaren 20an, berriz, *Cromlech* antzezlanak ikusteko aukera izango da, eta abenduaren 12an, aldiz, Kokedama ikastaroa egingo dute, landareak landatzeko teknika japoniarra ikasiz.

UDAZKEN KULTURALA

Urriak 21, osteguna

19:00. *Mendebaldeko Sahara: Zer gertatu da? Zer gertatzen ari da?* hitzaldia izango da, balio anitzeko gelan.

Urriak 31, ostirala

Gau beltza ospatuko dute herritarrek, guraso elkarteak antolatuta.



Aire Ahizpak Baliarraingo plazan kontzertua eskaintzen. ATARIA

Azaroak 7, igandea

19:00. Esanezin (Altzagarate) bakarlariaren kontzertua. Aurretik tokia erreserbatu beharko da.

Azaroak 11, osteguna

19:00. *Lurtaro* elkarteak: *Tolosaldea eta lekuko elikagaiak landuz, elikagai subiranorantz*, hitzaldia.

Azaroak 20, larunbata

Evaren alabak taldearen *Cromlech* antzezlanak ikusteko aukera.

Abenduak 12, igandea

Kokedama ikastaroa izango da. Landareak lantzeko teknika japoniarra da, eta goiz osoan zehar egingo dute.

KIROL EMAITZAK

Areto futbola	
BIGARREN B MAILA	
5. jardunaldia	
Lauburu Ibarra	8
Colo Colo	4
Sailkapena	
1. Tafa	12p
7. Lauburu Ibarra	8p
Hurrengo jardunaldia	
Pinseque (4) – Lauburu (7)	
HIRUGARREN MAILA	
5. jardunaldia	
Antiguoko	6
Tolosala	5
Laskorain	4
Elorrioko Buskantza	2
Sailkapena	
1. Aurrera de Vitoria	15p
2. Laskorain	10p
9. Tolosala	7p
Hurrengo jardunaldia	
Eskoriatza (4) – Laskorain (2)	
Tolosala (9) – Sasikoa Durango (15)	
SENIOR MAILA	
1. jardunaldia	
Lauburu Ibarra – Anoeta	
(atzeratuta)	
Ordizia	5
Laskorain	1
Lazkao Gaur Logistika	1
Samaniego Orixe	1
Sailkapena	
1. Ordizia	3p
4. Samaniego Orixe	1p
5. Lauburu Ibarra	0p
6. Anoeta	0p
9. Laskorain	0p
Hurrengo jardunaldia	
Laskorain (2) – Lauburu Ibarra (5)	
Anoeta (6) – Antiguoko (2)	
Samaniego Orixe (4) – Ordizia (1)	
Eskubaloia	
1. MAILA NAZIONALA	
4. jardunaldia	
Tolosala CF Eskubaloia	26
Arrate Eibar eskubaloia	29
Sailkapena	
1. Helvetia Anaitasuna	8p
9. Tolosala CF Eskubaloia	4p
Hurrengo jardunaldia	
Jacar San Antonio (11)	
Tolosala Eskubaloia (9)	
Futbola	
HIRUGARREN MAILA	
6. jardunaldia	

Tolosala CF	0
Arratia	0
Sailkapena	
1. Bizkerre	15p
11. Tolosala CF	5p
Hurrengo jardunaldia	
Aurrera de Vitoria (6)	
Tolosala CF (11)	
HIRUGARREN MAILA	
9. jardunaldia	
Tolosala CF	1
Urduliz	2
Sailkapena	
1. Alaves B	23p
19. Tolosala CF	5p
Hurrengo jardunaldia	
Leioa (13)	
Tolosala CF (19)	
ERREGIONAL OHOREZKO MAILA	
5. jardunaldia	
Bergara	3
Tolosala CF	6
Hurrengo jardunaldia	
Tolosala CF (12) – Touring (15)	
GORENGO MAILA EMAKUMEAK	
5. jardunaldia	
Goierri Gorri	8
Intxurre	0
GORENGO MAILA GIZONAK	
6. jardunaldia	
Orioko	5
Billabona KE	1
Zumaiaiko	2
Tolosala CF	0
Hernani	3
Danena KE	3
Hurrengo jardunaldia	
Danena (11)	
Billabona (9)	
Urnieta (10)	
Tolosala CF (3) (atsedena)	
LEHEN MAILA ERREGIONALA	
5. jardunaldia	
Usurbil	0
Intxurre	1
Saskibaloia	
SENIOR LEHEN MAILA	
2. jardunaldia	
Graficas Juaristi	75
TAKE	37
Hurrengo jardunaldia	
Astigarragako Mundarro (8)	
TAKE (3)	

Lau eta Erdiko Txapelketatik kanpo geratu da Erik Jaka

Unai Lasoren aurka 8-22 galdu zuen atzo Beotibar frontoian eta lizartzarrak ez du aukerarik finalerdietara pasatzeko; Altuna III.ak datorren astelehenean irabazi beharra du

Erredakzioa

Lau eta Erdiko Txapelketaren bigarren jardunaldiari amaiera eman zitzaion atzo Tolosako Beotibar pilotalekuan, eta Erik Jaka lizartzarrari aukera guztiek ihes egin diote Unai Lasoren aurka 8-22 galdu ondoren. Biek lehen jardunaldian galdu zuten, eta berebiziko garrantzia zuen atzoko norgehiagokak.

Lasok joko maila ona erakutsi bazuen, Jakari agian erritmo falta nabaritu zitzaion. Lasok ez zion utzi aukera gehiegi jokoan sartzeko, eta aukera izan zuenean lizartzarrak ez zuen asko asmatu. Partida pixkanaka joan zen galtzen Jaka, aurkariak ez baitzion hasieratik alde handirik atera. Itzaltzen joan zen Jaka, ikusirik ez zuela asmatzen tantak amaitzen.

Hirugarren jardunaldian Ezkurdiaren aurka jokatu du lizartzarrak, eta ez badu ere aukerarik txapelketan jarraitzeko, falta zaion erritmo hori berreskuratzeko erabili dezake partida.

ALTUNA III.A-K BADU AUKERA

Lau eta Erdiko Txapelketan eskualdeko lau pilotari hasi ziren, eta bakarrak du finalerdietara pasatzeko aukera: Jokin Altuna



Unai Laso eta Erik Jaka, atzo Beotibarren jokaturako partidari. I.G.L.

amezketarrak. Larunbatean Peio Etxeberraren aurka 18-22 galdu arren, lehen jardunaldian lortutako garaipenaren ondoren, astelehenean Oinatz Bengoetxearen aurka jokatu duen partida irabaziz gero aurrera egingo du Altuna III.ak.

Bergaran jokatu zuen amezketarrak Peio Etxeberraren aurka, eta 16 eta 12 irabazten joan zen arren, tantoz tanto gerturazten joan zitzaion Etxeberrari eta ezin izan zuen nafarraren jokoa apurtu. Erritmo handian jokatu zuten eta Altuna III.a lekua aurkitu ezinik ibili zen. Nafarrak 17

tanto egin zituen eta amezketarrak 12. Galdu, berriz, irabazleak sei eta galtzaileak bost. Sakez hiruna tanto egin bazituzten ere, bina falta ere egin zituzten. Etxeberriak «merezita» irabazi zuela adierazi zuen Altuna III.k.

Datorren astelehenean erabakiko da amezketarraren multzotik zein sailkatzen den. Peio Etxeberrak badu bere lekua finalerdietan, eta astelehenean Tolosako Beotibar pilotalekuan Altuna III.aren eta Bengoetxea VI.aren arteko partidari erabakiko da zeinek lortzen duen beste postua.



JON URBIETA, TXAPELA JANTZIGABE

Bote Luzeko Euskal Herriko Txapelketako finala jokatu zuten larunbatean, Buñuelen (Nafarroa). Jon Urbieta asteasuarrak Gipuzkoa taldearekin jokatu zuen eta Bizkaia 1 taldearen aurka 7-5 galdu zuten. Ez da posible izan oraingoan txapelarekin itzultzea. ATARIA

Unai Goitia, Ane Urresti eta Jon Unanue izan dira txapelkunak

Gipuzkoako orga eta txinga eroate txapelketak, eta lasto altxatze erakustaldia egin dituzte Asteasuko frontoian

Jon Miranda Asteasu

Larunbatean jokatu ziren Gipuzkoako orga txapelketa gizonezkoen mailan eta txinga eroate txapelketak gizonezko eta emakumezkoen mailatan, Asteasuko Usarrabi kiroldegian. Unai Goitia izan zen irabazlea orga txapelketan, eta Ane Urresti eta Jon Unanue txingan. Horrekin batera, lasto altxatze erakustaldia ere egin zuten.

Orga txapelketan, Unai Goitiak bost plaza eta 1,26 metro egin zituen, Aimar Galarragak hiru plaza eta erdi, eta Jabier Urrestik hiru plaza, laurden bat eta 3,70 metro. Emakumezkoen txinga eroate txapelketan, Ane Urrestik 15 plaza eta 12,5 metro egin zituen, Lierni Osak 10 plaza, 4 zinta eta 2,80 metro, eta Nerea Arrutik 10 plaza. Gizonezkoetan, Jon Unanuek 12 plaza, zinta bat eta 0,90 metro egin zituen, Jabier Urrestik 12 plaza eta Aimar Galarragak 4 plaza.

Gipuzkoako lasto altxatze txapelketan bi lagunek baino ez zuten izena eman, eta honenbestez, ez zen lehiarik antolatu ahal izan. Dena den, Ibarrako Lander Oterminek eta Zizurkilgo Pello Argaiak erakustaldia egin zuten 45 kiloko lasto fardoarekin. 7 metroko altuerara 15 aldiz igo ahal izan zuen fardoa Oterminek minutu eta erdian, eta denbora berean, 12 aldiz, berriz, Argaiak.



Ane Urresti, txinga eroateko proban. JON MIRANDA



Pello Argai eta Lander Otermin asto altxatzen aritu ziren. JON MIRANDA



Billabona FKEko taldeen aurkezpena egin zuten larunbatean. ATARIA

Erreboteak futbolari eman dio txanda

Erredakzioa Amasa-Villabona

Billabona FKE futbol klubak denboraldi hasierako festa antolatu zuen, eta egitarauko egun nagusia larunbata izan zen. Errebote plazan klubeko taldeen aurkezpena egiteaz gain, 4x4 futbol txapelketa antolatu zuten. Errebotearen orde, beraz, futbolak hartu zuen plaza.

Txapelketaren emaitzei dagokionez, 2011 urtean jaiotako mutiletan, Egarriko Tigreak taldea izan zen irabazlea, eta Goxobi I txapeldunordea. 2010eko mutilen artean, irabazlea Ez Beti izan

zen eta txapeldunordea Trumoi Beltzak. 2010 eta 2011 urteetan jaiotako nesken mailan, irabazlea Mari Morenak taldea izan zen, eta txapeldunordea Txuri Urdinak. 2009ko nesken artean, irabazlea Tolosa Bai izan zen eta txapeldunordea Arratzain III. 2012an jaiotako artean, irabazlea Lehoiak izan zen eta txapeldunordea Ibarrako Piperrak. 2013an jaiotako artean, irabazlea Geopardoak taldea izan zen. 2014 urtean jaiotako artean, irabazlea Kontraerasoan izan zen eta txapeldunorde Azaroa taldea.



Larunbatean Errebote plazan jokatuak 4x4 txapelketaren une bat. JON MIRANDA

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu



ASTEARTEA, 2021EKO URRIAK 19
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



GoPro kameraren zozketa jarri du martxan 'Ataria'-k; urriaren 24ra bitarte parte hartu ahalko dute Atarikideek eta jarraitzaileek

Kirol kamera esku eskura



Urpean grabatzeko aukera ere ematen du Hero 9 Black GoPro kirol kamerak. ATARIA

Erredakzioa

Udazken koloredun argazki ikusgarriak egin nahi? Kirolean edo lurereko nahiz urpeko mugimenduan bideo bereziak egin nahi? Bada, aukera dago orain, izan ere TOLOSALDEKO ATARIA-k, Laboral Kutxaren eskutik, GoPro kirol kamera zozketatuko du.

Bere jarraitzaileak saritzeko ekimen berria jarri du martxan, beraz, ATARIA-k Udako Argazki Lehiaketaren ostean, udazkeneko zozketa berezia. Paisaiak eta mugimenduak modu profesionalenean jasotzeko aukera ematen duen Hero 9 Black GoPro bikaina eskuratu ahalko da zozketan parte hartuta.

Argazkiak eta bideoak kalitate handian egin ahal dira Hero 9 Black GoPro-arekin, izan ere, bi-

deoetan 5K eta argazkietan 20MP bereizmenarekin egiteko aukera ematen du. Egonkortze sistema aurreratua du, 10 metroan urperagarria da, bateriaren iraupen handia du 3 ordu irauten duelarik bideoak grabatzen, atera daitekeen lentea du, eta lainorako konexioa egin daiteke, besteak beste.

Kirol kamera eskuratzeko zozketan parte hartu dezakete Atarikideek edota ATARIA-ren jarraitzaileak. 943 65 56 95 telefono zenbakira deituta egin ahalko da, edo bestela, *Ataria.eus* webgunearen bitartez. Azken modu horretan, zozketaren atalean sartu beharko da, eta eskatzen diren datuak sartu. Atarikide direnek bazkide zenbakia derrigorrez jarri beharko dute, eta Atarikide ez direnek, gune horretan, GOPRO idatzi beharko dute.

Parte hartzeko azken eguna

datorren igandea, urriaren 24a izango da, eta asteburuan internet bidez soilik parte hartu ahalko da. Pertsonako parte hartze bakarra onartuko da, eta Atarikideen kasuan, behin parte hartuta, aukera bikoitza izango dute zozketan.

ATARIA astelehenean jarriko da irabazlearekin harremanetan, telefono edo email bidez, sariduna dela adierazteko, eta astearte eguerdirako ez bada lortzen saridunarekin hitz egitea, beste saridun bat hautatuko da, gehienez ere, hiru saiakera egingo direlarik.

Gure paisaien argazki ikusgarriak edota kirolean edo bestelako mugimenduetan ikusten dena jasotzeko aukera ezin hobea ematen duen kamera esku eskura dute ATARIA-ren jarraitzaileak udazkeneko zozketa bereziaren bitartez.

AGENDA

Deialdiak

Alegia. Bertzaida Urtazarekin ipuin kontaketa, liburutegian, 17:00etan.
Alkiza. Genero desberdintasunari aurre egiteko programaren aurkezpena, 18:30ean Fagus Alkiza interpretazio zentroan.
Berastegi. Oinez Berastegi ekimena, plazatik abiatuta, 10:30ean.
Irura. Mendingo hil, hirian hildokumantala, gela borobilean, 19:00etan.
Tolosa. Emilia Pardoren *El encaje* roto landuko dute, irakurketa klubean, liburutegian 18:00etan.

Erakusketak

Tolosa. Oskar Tenaren *Ondar, harri ta zerrua*, 3 tabernan.
Tolosa. Tolosan, koronabirusaren hila beteetan, Aranburu jauregian.
Tolosa. Galtzaundi aldiak 30 urte, Aranburu jauregian.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Asier Imazek gidatutako magazina.
15:00. Amalurra. Ingurugiroari buruzko saiola.
16:00. Zebrabidea. Arrosa sareko irratien artean eginiko magazina.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!
11:30. Gaurkoan Tolosaldeko
13:30. Gaurkoan Tolosaldeko
19:00. Elkarrizketa
21:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Tolosaldea Kirolean

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Oscar Etxe-beste Etxarri. Gernikako Arborearen Lorategiak, 3. 943 65 10 40.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 51 18.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Uda sasoiko giroa izango dugu. Goizean erdi eta goi-mailako hodei batzuk agertuko dira, baina batere trabarik egin gabe eguzkiari. Arratsaldean aldiz, zeru urdina izango dugu. Haizeak hegotik harro joko du eta tenperatura nabarmen igoko da, 27-29 gradu artean joko duelarik goia.

Bihar. Aldaketa nabaritutako dugu. Goizean erdi eta goi-mailako hodei dezente agertuko da, baina eguraldi lasaia izango dugu. Arratsaldean aurrera egin ahal ordea, hodei baxuak ugaritzen joango dira eta azken orduetan euri pixka bat ere izango dugu. Haizeak goizean hego-mendebaldetik harro joko du; arratsaldean, aldiz, ipar-mendebaldera aldatuko da. Tenperatura jaitsi eta 24-25 graduan joko du goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Agregatzaile finantzarioa Aplikazioaren jakinarazpenak

LK Pay Txata

Online hipoteka

Meet Bideo-konferentzia-gestorearekin

— Yolanda Munin Freire
Bulego-gestorea, Zornotza

Erreminta digital guztiak ditugu zuretzat.

ZOZKETA BEREZIA

Zozketan parte hartzeko epea 2021eko urriaren 14tik 24ra, **943 655 695 telefonoan edo ataria.eus-en.**



GoPro Hero 9 Black-aren ezaugarriak:
5K-ko bideoa eta 20 MP-eko argazkiak, egonkortze aurreratua, urperagarria (10 metrora), bateriak % 30 gehiagoko iraupena, lente ateragarria, ...



Bada beste modu bat